

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren hamahirugarren xedapen-aldaketaren proiektua onestea, eta hasierako onespena ematea aldaketa horri

Hauxe erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko otsailaren 21ean egindako ohiko bilkuran:

1. Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren hamahirugarren xedapen-aldaketaren proiektua onestea, zein erabilera tertziarioari eta ostatu-erabilerari buruzkoa baita. Udaleko zerbitzu teknikoek 2020ko urtarrilean egin zuten proiektu hori.

2. Hasierako onespena ematea Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren hamahirugarren xedapen-aldaketari, dosierrean jasotako proiektuarekin bat.

3. Behin betiko onspena izan arte etenda uztea Gasteizko Erdi Aroko Hirigunearen Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren eremu guztian hirigintza-lizentzien emateak eta obraren erantzukizunpeko adierazpen edo jarduera sailkatuaren aurretiko komunikazioen tramitazioa —erabilera turistikoko etxebizitzetako etxebizitzetako logeiei dagokienez —, aldakuntza hau landu eta idatzi arte.

4. Dosierra jendaurrean jartzea, hogei egunerako, ALHAOn eta zabalkunderik handieneko egunkarietako batean iragarkiak argitaratuz, horrek eragiten diola uste duen orok aztertzerik izan dezan, baita egokitzen dituen alegazioak edo oharra aurkezterik ere.

5. Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondare eta Etxebizitza zuzendaritzetako erabaki honen berri ematea, behin betiko onspena eman aurretik egoki diren txostenak egin ditzaten.

Dosierra Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan egongo da ikusgai —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25, behea—, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko otsailaren 21ean

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE